

UPV/EHUko emakumeen eta gizonen berdintasunerako I. planaren 2.1 puntuan aurreikusitako **“Ikerkuntzako datu-baseak hobetzeko proposamenak egitea”** ekintza betez, hau da, ikerketa arloan berdintasuna bultzatze aldera, honako proposamen hauek egin dira:

Ikerketa arloan emakume eta gizonek duten parte-hartzeari buruzko diagnostikoa egin da, eta ez da sexuaren arabera bereizitako informazioa lortzeko inolako arazorik izan.

Hala ere, diagnostikoa egiterakoan ikasitakoak honako proposamen hauek egiteko aukera ematen digu, eskuratu beharreko informazioa zuzen hautatzeko orduan izandako arazoei dagokienez:

- Langile ikertzaileei buruzko datuen kuboan ikerketa proiektuak eta beste deialdi mota batzuk bereizi ahal izatea gomendatzen da.
- Proiektu bakoitzeko ikertzaileen datu pertsonalak betetzeko jarraibide argiak zehaztu eta jarraitzea gomendatzen da, pertsonaleko datuekin zehaztasun handiagoz bat etor daitezten.
- Aldizkako egiaztapenak egitea gomendatzen da bai pertsonalean bai ikerketan, informazioan barne koherentzia faltak detektatzeko.
- Emandako proiektuen grabazioan proiektuak genero ikuspegia kontuan hartzen duen adieraztea gomendatzen da.